

BERMEO / Poesia, lau ahotsetan

'Udaberriko errezitaldi poetikoa' entzuteko aukera izan zen herenegun liburutegian, Bermeora etorritako lau andraren eskutik

Ekaitz Goienetxea

Entzule askorik ez liburutegian. Denak emakumeak, poemak irakurriko dituzten lau pertsonak bezalaxe. Mesedez, hurreratzeko aurrerago, eskatzen du ahots eztiagaz eurentariko batek; ez dagoela prentsako inor lehenengo ilarako aulkiak okupatzeko. Badagoela esaten diote, baina ez da aitzakia.

Aurkezpena egiterakoan, beste bi gauza eskatzen dituzte: sakeleko telefonoak itzaltzea eta txalo egiteko gogoa sartuz gero, faborez, itxaroteko amaitu arte, hemen sortuko den giro majikoa ez apurtzeko.

Udaberriko errezitaldi poetikoa emanaldia izan zen herenegun liburutegian. Itsas ertzean poema bildumako hainbat zati irakurri zituzten. Ekitaldi honen funtsezko helburua poesiaren argitasuna helaraztea da, esentziatik begiratuta. Zuek ustekabeen harrapatzea, sentitutako errealitate horregaz, eta bertsoa garautu arma bat legez, orainaldiz, iraganez eta etorkizunez kargatua. Poesiaren igarkizuna ahots hauetan bizi da.

Eta ahots horiek justiziaz, naturaz, itxaropenaz, askatasunaz, maitasunaz... Hitz egin zuten. Margari Herrero hasi zen *No le temo a la noche* eta *Respuesta armoniosa y suave* poemekin. Euskarazko poema bakarra liburutegiko langile Biotza Arenazak errezitatu zuen: Isabel Gezuragaren *Heriotza versus bizitza*.

Emozioa

Carmen Martinezek bere *Ayer a estas horas* irakurri zuen eta Lucy Sepulvedak *Sol*. Bakoitzak bere ahoskera zuen, bere tonua, erritmoa, arnasa... Baina, ahotsa bakarrik ez, xehetasun gehiagogaz apaintzen zuten irakurraldia: begirada orrietara eta entzuleengana bideratzen zuten, irribarrea edo samina ere igartzen zen aurpegietan, poemaren arabera.

Eta emozioa behin baino gehiagotan entzuleen begietarantz igotzen zen eztarritik. Irakurtzen zuenak ere, arnasestuka bukatzen zuen behin baino gehiagotan poema.

Isabel Garciak dragoi baten ipuina kontatu zuen, zelan argia ezin zuen ikusi, eta biztanleek itsasargi bat martxan ipintzen zuten gauetan, arriskua urrun izateko. Garciak besoak mugitzen zituen, dragoiaren hegaldia imitatuz.

Horrela jarraitu zuten beste apur baten, txandaka, orain bat orain bestea, poema laburrak errezitatzen. Eskuekin erritmoa lagunduz, keinu gorabeheratsuak eginez.

Aurrez prestatutako errezitaldia labur egin zitzairen, eta Martinezek baimena eskatu zuen, inprobisatu eta apur bat gehiago luzatzeko poesia saioa. Gu gustora, erantzun zioten entzuleen artetik. Amaieran, entzuleak ezin gusturago uzteko, liburu bana oparitu zieten liburutegikoek.